

laister berri

001

OMEHALDIK

002

BEASAINCO
ODOLKIEN KOFRADIA

003

CALIPOTX

004

LUDOTEKAK

005

BEASAINCO OMDAREA

006

HAUR ZINEA

007

HAUR ZINEA

008

ANTZERKI GARAI

009

GOIENIZ

010

EKINTZAK

laister berri

OMENALDIA



Hilaren Sean 2007ko adineko emakumeari eta gizonari omenaldia egingo zaie Beasaingo Erretiratuen Etxean. Aurtengoan gainera senar-emazteak suertatu dira omenduak: erretiratuen etxeko bazkide diren Tomas Barrios Verdejo eta Joaquina Cenizo Herrero.

Antolatzaileek Meza Nagusiaren ondoren luncha eskainiko dute baina omenaldia bera arratsaldeko 17:00etan ospatuko da. Ospakizunean, **AURTZAKA**ko dantzari txikien dantzaldia eta erretiratuen etxeko abesbatzaren kantaldia izango dituzte gozagai.

laister berri

Diseinua:
AH Diseño
Maketazioa:
AH Diseño
Erredakzioa:
AH Diseño
Publizitatea:
AH Diseño
Imprimaketa:
Gráficas
San Martín C.B.
Lege Gordailua:
SS-654/96
Erredakzioa
helbidea:
Martina
Maiz 3/2.
bulegoa
T 943 882 257
F 943 027 639
E ah@clickah.com

Beasaingo Kultura
Batzordeak
aldizkari honen
6.500 ale banatzen
ditu hilabetero
Beasaingo
postontzietan.

Eragilea:
kultura saila



Beasaingo udala

laister berri

BEASAINGO ODOLKIEN KOFRADIA



Beasaingo Odolkien Kofradiak XXII. Biltzar Nagusia ospatuko du hilaren 5ean, Loinazko San Martinen egunean. Urtero legez, leku ezberdinetako Kofradiak etorriko dira Beasaina bertako kofradiaren gonbitea onartuta.

Bertara inguratzen garen guztiok dastatu ahal izango ditugu odolki-pintxoak kaleetan zehar egindako odolki-dastatze herrikoian. Gainera, XXII. Kapitulua honetan, Oñazko Kofradiakideen izendapena ere ikusi ahal izango dugu. Aurtengoan hiru ohorezko kofradiakide izendatuko dira: Kuskola txaranga, 25 urte hauetan Beasaingo Odolkia joan diren toki guztietara eraman dutelako; Mungiako herria, Beasaingo Odolkia Kofradiaren esperientzia jarraituaz San Antontxu Jaia antolatzen duelako; eta Wazemank programako zuzendari den Angel Alkain, mondeju eta odolki arteko sketch-arengatik.

laister berri

GALIPOTX



Golden Apple Quartet eta Kanpingags taldeek "GALIPOTX" Europako erdialdeko ipuin zahar batean oinarritzen den musikala aurkezten dute. Leonor nekazari baten alaba da, gizon ameslari eta irudimen handikoa da. Erresuman zehar ibiltzen da asmatutako gauzak kantazen. Berak esandako guztia egia dela dio. Are gehiago, erregearen aurrean adieraziko du Leonorrek lastoa urre bihurtzen duela. Nekazaria giltzaperatu ondoren, erregeak hiru egun ematen dizkio Leonor gazteari aitak esandakoa betetzeko. Lortuz gero, erregeak barkamena eskatuko die guztiei eta Leonor eta bere seme Eduardoren arteko ezkontza baimenduko du. Dena galduta dirudienean, Galipotx iratxoa agertzen da eta lastoa urre bihurtzen laguntzen dio Leonorri, Eduardorekin izango duen lehenengo haurraren truke ordea. Leonorrek onartu egiten du.

Otsailak 5, USURBE ANTZOKIAM, 17.00etan. Sarrera 3 .

laister berri

LUDOTEKA

Ludotekek urte-hasierako matrikula-kanpaina jarri berri dute abian udalemiko umeentzat eta gaztetxoentzat. Bertan izango dute gainerako haurrekin eta gaztetxoekin harreman berriak sortzeko aukera.

Otsailean zehar zabalik izango da matrikula-epea Berritsu eta Txelotxe ludoteketan. Otsailetik ekainera bitarteko matrikularen kostua 25€-koa da.

Informazio gehiago nahi izanez gero ludoteketara deitu edota bertara joan zaitezke.

TXELOTXE.
Ezkiaga Auzo Etxea.
Tel.: 943 086550.
Orduategia:
16:30etik 17:30era.

BERRITSU
Loinazko San Martin plaza.
Tel.: 943 886546.
Orduategia:
17:00etatik 20:00etara.



laister berri

BEASAINCO ONDAREA



Beasaingo Udalak Beasaingo Ondarearen datu-baseari atal oso bat eskaintzen dio udalaren webgunean. Aldez aurretik, 2000. eta 2001. urteetan Beasaingo ondareaz egindako inbentarioak bildutako informazioari esker historia, arkitektura, arkeologia edota arte arloetan garrantzirik handiena duten Beasaingo ondare higiezinaren elementurik aipagarrienak jaso dira bertan.

Datu-basean erlijio-elementuak edota zibilak, herri-ondarekoak edota pribatuak, antzinakoak edo berriak, ongi gordeak edo suntsituak topatuko ditugu. Igartzako monumentu-multzoak; CAF enpresako eraikin-multzo konplexua eta gainerako industria-arkeologiako ondareak; arte-lanak eta udalerriko baserriak ere bertan izango ditugu.

laister berri

HAUR ZINEA



Otsailak 17:
HARRI MAGIKOAREN BILA

Gayako irudimenezko mundua, gizakien antz handia duten baina gizakiak baino askoz txikiagoak diren izakien egoitza da. Bertako biztanleek ordea berehalako suntsipen bati aurre egin beharko diote. Norbaitek "Dalamita" harri magikoa ostu egin baitu. Bi gayar, Boo eta Zino, harri magikoa bilatzeko bidai amiskutsuan barneratuko dira Alanta borrokalariaren laguntzarekin. Bidaia horrek mundu bitxi batera eramango ditu, gure eguneroko mundura.

Otsailak 24:
PEPPER

Pepper zakur berezia da: diru mordoa oinordetzan jasotzeaz gainera, hitz egiten ere badaki!! Bere dirua nahi duten lapurrek jazarria izanik, babesa bilatuko du Singerdarren etxean, familia guztiz bitxiaren ondoan. Felix mutiko bakartiak egingo dio harrera, egun osoa tigrez mozorrotuta pasatzen duenak. Mutikoak eta zakurrak hamaika amiskuri egingo diete aurre elkarrekin eta munduko altxomik ederrena aurkituko dute: adiskidetasuna...

laister berri

HAUR ZINEA



Otsailak 3:
CRISTOBAL MOLON

★
Belarronia inperioa, Goroztenia inperioaren anbizio neurrigabea dela eta, bere handitasuna galtzen ari da. Lehiakideari behingoz irabazteko, Belarroniako Erregearen kontseilaria den Destruzzio zitalak bidala zimarragami bat egitea proposatuko du ilargira. Ustezko aurkitzaile ospetsua den Kristobal Molon izango da tripulazioaren buru. Eta Karabix neska-koskorra izango du lagun pilotu lanetan. Espedizioak porrot biribila dirudi...



Otsailak 10:
IRATXOEN ERREGEA

Jaio zirenetik, Kyle eta Evie Prestonek beren amonaren istorioak entzuten zituzten: erraldoi borrokalariek munduko azken irabioak harrapatu eta lurperatu zituztenaren inguruko istorioak. Amona hiltzean, ume-meazulo bat eta familiako etxe bat jasoko dituzte oinordetzan. Neba-arrebak ez dakite ordea meazuloan harrapatuta dauden irabioen berri eta haiek askatu ezean betirako desagertuko direnaren berri ere.

Otsailak 23

Nasdrovia Chejov

Vaiven Produksioak / Egilea: Anton R. Chejov. / Egokitzailea: Alberto Iglesias / Zuzendaria: Fernando Bernuas / Lekua: Usurbe Antzokia, Beasain.

Izenburu horrekin, autorearen ipuin batzuen eszena-transkripzioa burutu dugu, Chejov-en izpirituari leial irauenez eta antzezpenaren distiraz hornituz. Bere ezaugarriekin bat etorri gara: maisu-obra txiki hauetan denetan ageri diren elkarriketa bizi, dibertigarri eta mingarriak, batera eskaintzen dira.

Ipuin horietatik atera diren antzezpenetan, Chejov-en pertsonaia ezaugarritsuenak agertzen dira: Jeneralak, funtzionarioak, "etxe onetako" andereak, neska ezkongabeak, gazte bizkorak, neurrigabeko hiltzaileak, burges agurgarriak,... Adarra joz eta gogotasunez kontatutako jende-kontakizunen pasalekua da, aurretik jakin ezin den amaiera duten pasarte umoretsuekin, batzuetan maitagarriak eta askotan gazi-gezak. Xehetasunetan doi-doiak, tipologia adierazgarria finkatzeko gaitasunak eta landutako umore dotoreak osatzen dute obra fresko inpresionista handi hau eta bertan ageri dira bizi-bizirik garai berrien modernotasuna, begirunea eta kontraesanak.



TRANSAMERICA

8 de Febrero, jueves.
Director:
Ducan Tucker.



Bree Osbourne aguarda con ganas el momento en el que pueda hacerse una operación de cambio de sexo que por fin le permita reconocerse como una mujer. Sin embargo, descubre que tiene un hijo de una relación que mantuvo en el pasado, y su médico no autorizará la intervención quirúrgica hasta que conozca al muchacho.

THE ROAD TO
QUANTANMO

15 de Febrero, jueves.
Director:
Michael Winterbottom
eta Mat Whitecross.



Cuatro amigos británicos viajan desde Tipton, en las Midlands inglesas, a Pakistán en septiembre de 2001 para asistir a la boda de uno de ellos y, de paso, disfrutar de unas vacaciones en Pakistán. Al cruzar la frontera de Afganistán las tropas de los EEUU los confunden con miembros de Al Qaeda.

DE BATTRE MON
COEUR S'EST ARRÊTÉ

22 de Febrero, jueves.
Director:
Jacques Audiard.



Tom tiene 28 años y está destinado a seguir los pasos de su padre en el sórdido y a veces brutal negocio inmobiliario. Pero un encuentro casual le lleva a creer que puede convertirse como su madre, en pianista. Con determinación, comienza a prepararse para una audición con una virtuosa pianista china.